



2020KO AZAROAREN 30EAN  
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Arrunta  
Data: 2020-11-30  
Ordua: Arratsaldeko 20:00etan  
Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

**EGUNEKO GAI ZERRENDIA:**

**LEHENENGOA.** Aurreko bilkuretako aktak onartzeko proposamena.

**BIGARRENA.** Alkatetzak emandako ebazpenen berri ematea

**HIRUGARRENA.** Martin Villa pertsona "non grata" izendatzeko mozioa onartzeko proposamena.

**LAUGARRENA.** Tolosaldeko ospitale publikoaren aldeko mozioa onartzeko proposamena.

**BOSGARRENA.** Administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak Estatuko administrazio orokorrekarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzaren hitzarmeneko atxikimendu protokoloa onartzeko proposamena.

**SEIGARRENA.** 2021. urteko udalaren aurrekontua, lantalde organikoa eta lanpostuen erlazioa hasiera batez onartzeko proposamena.

**ZAZPIGARRENA:** Erregu eta galderak

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2020ko azaroaren 30an, arratsaldeko 20:00tan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziapean.

Zinegotziak:

- Eider Mugica Ormazabal (20:00)
- Joel Wepsiec Mariezcurrena (20:00)



Ez dira batzarreratu:

- Leire Talavera Etxeberria
- Alain Barandain Ayerza

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari - kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

#### GAI ZERRENDA:

##### LEHENENGOA PUNTUA:

##### AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEKO PROPOSAMENA

- 2020/05/25 Ohikoa.
- 2020/06/16 Ezohikoa.
- 2020/11/02 Ezohikoa.

Oharririk aurkeztu ez direnez, idatzita dauden era berean aho batez onartzen dira.

##### BIGARREN PUNTUA:

##### ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Indarrean dagoen Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42. artikuluan adierazten duen ondorioetarako, Batzarrari, ohiko azken bileraz gero, Alkatetzak eman dituen ebazpenak aditzera ematen zaizkio. Hain zuzen ere 2020/25etik 2020/73ra dekretura doazenak, biak barne, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

##### HIRUGARREN PUNTUA:

##### MARTIN VILLA PERTSONA "NON GRATA" IZENDATZEKO MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrako edukia:

---

Estatu espainiarraren inpunitate politika, diktadura frankistan eta trantsizio politiko deiturikoan gauzaturiko gizateriaren aurkako krimenen ikerketa eta auzipetze ezari dagokionez, gaur egungo arazoa da, gizartean eta gutxieneko estandar demokratikoak bete nahi dituen Estatu oren onarritako zimenduetan eragina duena.



Rodolfo Martín Villa politika eta errepresio frankistaren egile nagusietako bat izan zen 60 eta 70eko hamarkadetan, SEUko buru nazional, sindikatu bertikaleko idazkari eta Bartzelonako gobernari zibil izan baitzen. Gero, Arias Navarroren gobernuarekin Harreman sindikaletarako zein gobernazio ministro eta, ondoren, Suarez gobernuarekin Barne ministro izan zen. Haren aginte pean, ministro zela 1975ko abendua eta 1979ko apirila bitartean, errepresio odoltsuaren erantzule izan zen, krimen larriak gauzatu baitziren: Gasteiz (1976), amnistiaren aldeko astea edota Iruñea (Sanferminak 1978), Euskal Herrian, eta baita hemendik kanpo, Madril, Malaga, Tenerife, Bartzelona, Alacant....

Martin Villa inputatua izan da, justizia unibertsalaren printzipioa aplikatua, Argentinako Errepublikaren Krimen gaietarako eta zentzategi federaleko 1. Epaitegi Nazionalen gizateriaren aurkako krimenak egotzita, haren jarduna giza eskubideen urraketa masibo, sistematiko eta antolatuen esparruan gauzatu baitzen, berrogei urtetan zehar, diktadura frankistan, eta Trantsizio deiturikoan.

Gizateriaren aurkako krimenak direnez, preskripzioa ez da ezartzen, eta aipaturiko delituak ez daitezke ez amnistiatu, ezta indultatu ere. Horregatik, Argentinako agintari judizialek haren estradizioa eskatu zioten Gobernu espainiarrari. Ministro Kontseiluaren 2015eko martxoaren 13ko Erabakiak ukatu zuen eskaera.

Dena den, eta aipaturiko kereilaren tramitazioari utzi gabe, Estatu espainiarrak Giza Eskubideen eta nazioarteko zuzenbide penalaren arloan hartutako eginbeharrak behar bezala betetzeko, beharrezkoa da dagokien prozesu judizialak hastea, Martin Villak izan dituen erantzukizun penalak zehaztu eta garbitzeko.

Ez dirudi ordea horretarako asmoa duenik, Espainiako aginte eremu ezberdinetatik kereilaren tramitazioa galarazten saiatzeaz gain, irailean Maria Servini epaileak Martin Villari deklarazioa hartu bezperan, Gobernu presidente izandakoek eta beste zenbait pertsona esanguratsuk gutuna atera zuten Martin Villari babesa eskainiz, frankismoaren biktimentzat iraingarria eta justiziaren jardunean eragiteko ahalegin onartezina.

Aurrekoa oinarri harturik, Elduaingo Udalaren Osoko Bilkurari eskatzen diogu ondoko mozioa har dezala:

#### MOZIOA:

1.- Gobernu espainiarra premiatu 2015eko martxoaren 13an Ministro Kontseiluak hartutako erabakia bertan behera uzteko, alegia Maria de Servini epaileak Martin Villari deklarazioa hartzeko egindako estradizio eskariari zegokiona.

2.- Nazioarteko Zuzenbidearen “estradiatu edo epaitu” printzipioa aplikatuz, Estatuak behar bezalako neurriak har ditzan auzitegi espainiarrek diktadura frankistan eta Trantsizio politiko deitutakoan gauzatutako gizateriaren aurkako krimenak ikertu eta epaitu ditzaten, eta, bereziki, Martin Villaren erantzukizuna izan daitezkeenak.

3.- Udalerrri honetan Martin Villa pertsona “non grata” deklaratzeari.

4.- Baldin eta inoiz Elduaingo Udalak bere garaian Martin Villari emandako ohorezko aipu eta dominarik eman badizkio, berehala kentzea, bertan bera utziz inongo gorazarrerik.

5.- Maria Servini epaileari frankismoko krimenen zigorgabetasunarekin amaitzeko egiten ari den lana eskertu, Gobernu Espainiarrak jarritako oztopo guztien ondotik, presidente izantakoek eta beste zenbait ordezkari gutun bidez Martin Villari eman babesa salatu eta Argentinako epaitegia egiten ari den lanaren jarraitzea eskatu.

6.- Erabaki hau ondoko hauei helaraztea: Justizia Ministerio espainiarrari, Auzitegi Nazionalaren buruari, Auzitegi Gorenaren buruari, Estatuko Fiskaltza Nagusiari eta Argentinako Errepublikaren Krimen gaietarako eta zentzategi federaleko 1. Epaitegi Nazionalari.



Eta, besterik gabe, Udal Batzarrak aho batez

**ERABAKITZEN DU:**

**BAKARRA:** Presidentziak aurkeztutako mozioa onartua gertatzen da.

**LAUGARREN PUNTUA:**

**TOLOSALDEKO OSPITALE PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak hitza hartu du eta mozioaren berri eman du:

Tolosaldeko herritar, eragile eta udalak urteak dira, eskualde honetako ESI (Erakunde Sanitario Integratua) aren izaera publikoa aldarrikatzen ari garela eta horrekin batera ospitale publikoa.

Aldarrikapen hauek Tolosaldean duten babes zabalaren beste adibide bat izan da “Aski da! Tolosaldean Osasungintza Publikoa” lemapean urriaren 17an Tolosan egin zen manifestazio jendetsua.

Berriki, 2020ko urriaren 30ean hain zuzen, Gotzone Sagardui Osasun Sailburua, Tolosaldeko osasun arretaz aritu da hizketan. Tolosaldeko osasun arretaren beharrak identifikatu eta horren araberako inbertsioak egingo direla azaldu du, zehaztasun gehiagorik gabe.

Osasun sailburua gaia aztertzen ari dela esan duenez gero, orain da Tolosaldeko ESIa osatzen dugun herrietatik, beste eskualdeek duten erabateko osasun arreta publikoa eskatzeko unea.

Tolosaldeko ESIak 65.000 biztanleei ematen die zerbitzu, zentzu horretan, mozio honen bidez, maila bereko Euskadiko beste eskualdeek duten kalitate, zerbitzu karta, langile ratio eta maila berdineko ospitale publikoa eraikitzeke eskaera luzatzen da.

Hau guztia dela eta, udal honek ondorengoa bere egin dezan eskatzen da:

- Osasun Sailari Tolosaldeko ESIak dituen 65.000 biztanleei kalitatezko zerbitua emateko dagokion ospitale publikoa eraikitzea, populazio berdina duten beste eskualdeen parekoa.
- Mozio hau, Osasun sailburuari, Eusko Legebiltzarreko osasun batzordeko kideei eta Tolosaldeko ESIko arduradunei bidaltzea.

Eta, besterik gabe, Udal Batzarrak ahobatez

**ERABAKITZEN DU:**

**BAKARRA:** Presidentziak aurkeztutako mozioa onartua gertatzen da.



**BOSGARREN PUNTUA:**

**ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLA ONARZEKO PROPOSAMENA.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 Legeak administrazio elektronikoari buruzko hainbat betebeharrak ezartzen dituen administrazio publikoentzat, udalentsat barne, eta legearen 2. Xedapen gehigarriak zera xedatzen du:

Ahalordetzeen erregistro elektronikoari, artxibo elektronikoa bakarrari, datu-bitartekaritzako plataformari, eta Administrazioaren irispide puntu elektronikoa orokorrari buruz aurreikusitakoa betetzeko, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek aukera izango dute beren borondatez eta bitarteko elektronikoz atxikitze hartarako Estatuaren Administrazio Orokorra ezarritako plataforma eta erregistroetara.

Hortaz, eta 39/2015 Legeak ezartzen dituen betebeharrak betetze aldera, Estatuak eta Eusko Jaurlaritzak alde batetik eta Eusko Jaurlaritzak bestetik izenpetutako hitzarmenetara atxikimendua ematea proposatzen da.

Estatua eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2017ko apirilaren 21ean argitaratu zen.

Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018ko abenduaren 21ean argitaratu zen.

Eta, besterik gabe, Udal Batzarrak aho batez **ERABAKI DU:**

**BAKARRA:** Onartzea aipatutako bi hitzarmen hauetara atxikimendua (I.ERANSKINA)

**SEIGARREN PUNTUA:**

**2021. URTEKO UDALAREN AURREKONTUA, LANTALDE ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ERLAZIOA HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

2021. ekitaldirako Udal aurrekontuaren proiektuak honako kapitulukako laburpena azaltzen du:

SARERRAK	2021 Aurrekontua
I. ZUZENEKO ZERGAK	115.000,00
II. ZEHARKAKO ZERGAK	35.000,00
III. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	48.569,54
IV. TRASFERENTZI ARRUNTAK	263.327,42 €
V. ONDAREZKO SARRERAK	0,00
VI. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. KAPITAL TRASFERENTZIAK	0,00
VIII. AKTIBO FINANTZARIOAK	0,00
IX. PASIBO FINANTZARIOAK	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>461.896,96</b>



GASTUAK	2021 Aurrekontua
I. PERTSONAL GASTUAK	169.398,45 €
II. GASTUAK OND. ARRUNT ETA ZERBITZU	72.030,00€
III. FINANTZA GASTUAK	00
IV. TRASFERENTZI ARRUNTAK	21.728,51
VI. INBERTSIO ERREALAK	193.550,00€
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK	2.190,00
VIII. AKTIBO FINANTZAROAK	0,00
IX. PASIBO FINANTZARIOAK	3.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>461.896,96</b>

Aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarri behar dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor exigigarriak, zentsuak, pentsioak, finantza kargak; beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependenzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisoetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta instalazioak egitetik datozen gastuak.-

Idazkari-kontu-hartzaileak beharrezkoa den txosten ekonomiko-finantzarioa egin du.

Kontuan harturik Batzorde Informatzaile Orokorrek 2020ko azaroaren 10ean egindako bileran aldeko diktamena eman zuela, besterik gabe bozketa egin da honako emaitzarekin:

Eta besterik gabe, espedientea ikusita gaiaren bozketa egin da.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

**LEHENA:** Aurkeztu den eta jasota geratu den kapitulutako laburpena duen 2021. ekitaldiko udal Aurrekontuaren proiektua, Udal Plantilla Organikoa eta Lanpostuen zerrenda hasierako izaeraz onartzea. (II.ERANSKINA).

**BIGARRENA:** Espediente osoa erabaki honekin batera arauzko jendaurrekoan ezarriko da.

**HIRUGARRENA:** Jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin-betiko onetsita joko da.

Erreklamazioa egiteko gaitasuna dute: Uztailaren bosteko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikulua aipatzen dituenak.

Aurkezteko tokia: udalaren sarrera errejistroan.

Nori zuzendu erreklamazioa: Udal Batzarra.

**LAUGARRENA:** Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betirako onartutzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztu gero, Udalbatzarrak ebatziko ditu.



**ZAZPIGARREN PUNTUA:**  
**ERREGU ETA GALDERAK**

Alkateak Udalbatzako gainerako partaideei aukera eman die egoki iritzitako galderak eta eskariak egin ditzaten.

Besterik gabe, 20:55ean, Presidentetzak batzarra amaitutzat jo du, eta akta hau egin dut, nik, idazkari honek, gertaturiko guztia zehatz jasota. Fede ematen dut

O.E.  
Alkateak,

Udaleko idazkari - kontu-hartzailea,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Maria Pilar Garmendia Miguel



ELDUAINGO UDALA  
Udaletxea 1  
20.493 Elduain  
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA  
BASQUE COUNTRY



2020ko azaroaren 30eko Ohiko Bilkura

## I. ERANSKINA





ELDUAINGO UDALA  
Udaletxea 1  
20.493 Elduain  
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA  
BASQUE COUNTRY



2020ko azaroaren 30eko Ohiko Bilkura

**ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK  
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN  
LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA**

**ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO  
ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-  
HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA**



**Oihana Amundarain Zubillaga andreak, alkate gisa eta, Elduaingo Udalaren ordezkartzan, hauxe**

**ADIERAZTEN DU:**

**Elduaingo Udal Batzarrak 2020ko azaroaren 30ean erabaki du administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetza-hitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere:**

- **Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetza hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.**
- **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetza hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.**

**Elduaingo Udalak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.**

**Horren guztiaren ondorioz, honako hau**

**ESKATZEN DU:**

**Elduaingo Udalaren atxikimendua, toki-erakunde horren ordezkari naizenez, administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako aipatutako hitzarmenekiko. Hain zuzen ere:**

- **Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz.**



ELDUAINGO UDALA  
Udaletxea 1  
20.493 Elduain  
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA  
BASQUE COUNTRY



2020ko azaroaren 30eko Ohiko Bilkura

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hauek dira aipatutako administrazio elektronikoen zerbitzuen katalogoan jasotzen diren irtenbide teknologikoak: *(markatu eskatzen direnak)*

- Euskal administrazio publikoen komunikazio-sarea  
Red de comunicaciones de las administraciones públicas vascas
- Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak  
kudeatzeko zerbitzuak  
Servicios de gestión de medios de identificación, autenticación y firma electrónica



ELDUAINGO UDALA  
Udaletxea 1  
20.493 Elduain  
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA  
BASQUE COUNTRY



2020ko azaroaren 30eko Ohiko Bilkura

- Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa (NISAE)**  
**Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE)**
- Ordainketa-pasabidea.**  
**Pasarela de Pagos**

**Sin.: Oihana Amundarain Zubillaga**

**Elduaingo Udaleko alkatea**



ELDUAINGO UDALA  
Udaletxea 1  
20.493 Elduain  
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA  
BASQUE COUNTRY



2020ko azaroaren 30eko Ohiko Bilkura

## II. ERANSKINA



PLANTILLA ORGÁNICA DEL AYUNTAMIENTO DE ELDUAIN PARA EL AÑO 2021

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAKO GORDETAKO LANPOSTUAK				PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA			
Lanpostuaren izena	Lanpostu kopurua	Azpitaldea	Egoera	Denominación de la plaza	Número de plazas	Subgrupo	Situación (1)
Idazkari Kontu-hartzailea <b>Oharra:</b> %30,00eko dedikazioa. Berastegiko Udalarekin elkarte	1	A1	H	Secretario/a Interventor/a	1	A1	V
Gizarte Langilea <b>Oharra:</b> %14,28ko dedikazioa. Berastegiko Udalarekin elkarte	1	B	H	Trabajadora Social	1	B	V
Administrari laguntzailea	1	C2	H(a)*	Auxiliar Administrativo	1	C2	V(a)*
(a) % 100ko lan-saioa.				(a) Dedicación 100%.			
(1) = J: Jabetzan; H: Hutsik				(1) = P: Propiedad; V: Vacante			
BEHIN BETIKO PERTSONAL LABORALARI ESLEITUTAKO LANPOSTUAK				PUESTOS DE TRABAJO ATRIBUIDOS A PERSONAL LABORAL FIJO			
Izena	Asimilazio Azpitaldea	Kop.	Oharrak	Denominación	Subgrupo de asimilación	N.º de puestos	Observ.
Udal Zereginetarako Ofiziala	ULEI1	1	(a)	Operario de servicios	APM1	1	(a)
(a) % 100eko lan-saioa.				(a) Dedicación del 100 %.			



2021 URTERAKO ELDUAINGO UDALAREN LANPOSTUEN ZERRENDA  
RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO DE ELDUAIN PARA EL AÑO  
2021

Lanpostua/ Puesto	Saila/ Sección	Izaera/ Condición	Eskala/ Escala	Azpitaldea/ Grupo	Maila/ Nivel	Lan-saioa / Dedicación	H.E/ P.L.	Der.data/ Fecha Percep.	Tit. * Tit.*
Idazkari Kontu-hart./ Secretario- Interventor	I-K	F	G.E.	A1	21	%30	4	95.04.30	Z/E/S Liz.
	S-I	F	H.E.	A1	21	30%	4	30.04.95	D/E/S Lic.
Gizarte langilea/ Trabajadora social	Gizarte Zerbitzu./ Servicios Sociales	F		B	17	%14,28	3	11.09.27	Diplom./
		F		B	17	14,28%	3	27.09.11	Diplom.
Udal Zereg. Ofiziala/ Operario de servicios	Adm. Orok. Adm. General	L		ULE1	12	%100	2	09.04.30	DBH /
		L		APM1	12	100%	2	30.04.09	ESO
Adm. Lagunt./ Aux. Admvo.	Adm. Orok./ Adm. General	F		C2	14	%100	3	09.04.30	DBH /
		F		C2	14	100%	3	30.04.09	ESO

Tit * = Titulazioa	Tit. * = Titulación
Z/E/S Liz. = Zuzenbidean, Zientzia Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian, Administrazio eta Enpresa Zuzendaritzan, Ekonomia edo Finantza Zientzietan Lizentziatua.	Z/E/S Lic. = Licenciado en Derecho, Ciencias Políticas y de la Administración, Sociología, Administración y Dirección de Empresas, Economía o Ciencias Actuariales y Financieras.
DBH = Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	ESO = Educación Secundaria Obligatoria